



EBAZPENA, 2018KO APIRILAREN 12KOA, GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKAIRARENA, IKASTETXE PUBLIKOETAN SUKALDEKO BEHARRAK ALDI BATERAKO BETETZEKO ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIREN IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkariek 2018ko otsailaren 1ean emandako Ebazpen bidez irekin ziren sukaldaritzako izangaien zerrendak, indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko Hitzarmen Kolektiboaren III. Eranskinaren baitan (2009ko martxoaren 31ko EHAA, 62. Zk.).

Adierazitako deialdian ezarritakoari jarraituz, aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, honakoa

EBATZI DUT

Lehena.- Argitara ematea, Gipuzkoako Lurralde Ordezkariek 2018ko otsailaren 1eko Ebazpen bidez ireki ziren sukaldeko ordezkapenentarako, onartuak eta baztertuak izan diren izangaien behin betiko zerrendak, ohiko alfabeto-hurrenkeraren arabera antolatuta eta baztertuen kasuan, baztertua izanaren arrazoia adierazita.

Bigarrena.- Zerrenda osatzen duten ordezkogaiak aipatutako ebazpenean ezarritako irizpideen arabera ordenatu dira eta, alfabetikoki, izen-deituren arabera, 2017-2018ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehaztuko duen letra aukeratzeko zozketaren emaitzaren arabera. Zozketa horren emaitza Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko martxoaren 23ko ebazpenaren bidez eman zen argitara: K letra.

Hirugarrena.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak honako toki hauetan kontsultatu ahal izango dira:

- www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-Arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasle ez diren langileak / Ordezkapenentarako izangaiak – sukaldariak. Zerrendak irekitzea / 2018-02-1eko deialdian edo ondorengo estekan klik eginez http://www.euskadi.eus/web01-a3holaei/eu/contenidos/informacion/langile_nd_listas_cocina/eu_def/index.shtml

Laugarrena.- Interesatuak gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango dute Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; hau da, 2018ko apirilaren 13tik maiatzaren 12ra bitartean, biak barne.

Donostia, 2018ko apirilaren 12a

GEMA GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA
LURRALDE ORDEZKARIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILA**
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**
Delegación Territorial de Gipuzkoa